

Mutil 1940 hamarkadan

E.: eta xu gazte xinelarik, beraz, mutiko gehienak bezala, mutil egon xira veste artzain edo laborari batzuentzat.

B.: anitz lekutan mutil, anitz lekutan egon niz mutil. Lehenik emen Mendiben berian, etxola ementxe ute, Zurtzain, eta hor gerla denboran, etxeko jendiak oro gerlan zien, bi aizpa zien bakarrik etxean zienak. Hiru mutil. Biga bazien etxeko mutilak, eta baño artzaiña, ni hemen, ta hola, hori, etxe hori hustu zen, ereman zuzten nausia, etxeko semia, ta mutil bat. Zaude, mutila bazuten, ta artzaiña, naski, ta bi mando bazuzten lanen iteko, hek denak reclusionatiak, ara, ta ni gerla denboran hor egon niz, mutil.

E.: eta gero, segitu uxu muthil?

B.: gero re mutil ba, batzu-bestetan.

E.: bainan beti artzain...

B.: ba, ba, ba. Bazien Heletako bi gizon Ameiketan urte zonbait egonik, jin zien gerla ondoan, oita emeetziko gerla ondoan jin zien hunat Heletaak, ta erosi zuzten ardiak, an e ardiekin ai izanak beitzien, ta zarri zuten biek bedera mutil, ta nik batendako Heletan pasatu nitien, negian bazkak erosten zitien Heletan... Negia Heletan, ta geo nik hartzen nitien, ez unat ordian, bana hat Auxkiko (Ahuzki) borturat ardi orien zaintzeko abendoain leen artio, ta geo berriz joaiten, bi urtez in dut Heletan, ta geo saldu zitien orrek, ta bestea, hak, beste anaiak erran zaan, hak mutila joana zien doaike, ta: “hik jin bea uk enetako” erran zien, ta beste bi urte in nitien geo, ala, beti ardiekin, hola-ola.

E.: eta Mendibe, Lekunberri, Ahatsako xure adineko mutikoek edo gizonek gauza bera in dikexie, geienak mutil egoiten zitxun leenik?

B.: ba, ba, ba, ba, mutil tao laxe, etxean leenik aita-amekin, etxe geienetan baitzien ardiak, eta olaxe, partitzeko hola ikasi, ta geo mutil.

E.: eta sos puxka bat irabazten zena?

B.: Bah! Gutti arrunt, puf, ez zen sosik ordian, arrunt gutti, arrunt gutti, sosa ez zen mila lirakoik ez, ordian! Zantimak, zantima zonbait.

E.: eta artzain munduan beti ber maneran ibili uxu, erran nai baita, neguan bazkak erosten zirela, eta gero udan, soro... Borturat (...)tzen zela.

B.:borturat, borturat, ta bortian ere deklaritzen dira ardiak, zonbat buru den, ta sindikatak pagatzen du buruko unenbeste bear da paatu udako re. Ua neguko bano merkio da ale, bana, ara, negian dira bazkak kariotu, gero ta goro, zerak, gauzak, fuelak eta kario diela, ta artako bazketan ta goititzen zuten beti, ta gu bezalako lurrik ez dien artzaiña bear zen zarri nunbait pentsionian edo bazkak erosi.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala